



Unibertsitateko panela:

TikTok

61. TXOSTENA · 2025EKO ABENDUA



AURKIBIDEA

IKUSIKER.....	2
1. FITXA TEKNIKOA.....	3
2. EMAITZAK.....	4
TikTok.....	4
Ongizatea.....	11
LABURREAN.....	14
TikTok.....	14
Ongizatea.....	15
IKUSIKER.....	16

IKUSIKER

Gazteek ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eta Harreman, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (HIKT) erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen ditu IKUSIKER Ikus-entzunezkoen Behategiak.

2018/2019 ikasturtean sortu zen IKUSIKER Behategia eta gaur egun NOR Ikerketa Taldeaz gain beste erakunde hauek osatzen dute: EITB, Kulturaren Euskal Behatokia, Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskarabidea.

NOR ikerketa taldearen kodea da: IT1438-22. Ikerketa hau EHUren US24/29 deialdiaren barruan kokatzen da.



EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

Sarriena auzoa z/g. 48940. Leioa (Bizkaia).

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus

Nola aipatu: Ikusiker Behategia (2025): *TikTok. 61. txostena*.

Egileak: Edorta Arana Arrieta, Bea Narbaiza Amillategi, Garazi Sanchez Murciano, Ane Zugaza Goienetxea, Xabier Tirapu Intxaurren, Mikel Peña Sarrionandia, Itziar Zorita Agirre, Maialen Goirizelaia Altuna, Jone Hernandez Perez de Gereñu eta Uxue Zendagortagalartza Velasco.

www.ikusiker.eus

Ikerketa hau burutzeko Aztiker Soziologia Ikerlanean laguntza jaso da eta Encuestafacil aplikazioa erabili da *online* galdetegiak betetzeko.



1. FITXA TEKNIKOA

2025-2026 ikasturtean, IKUSIKERen Unibertsitateko panelean bat egiten dute Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA/NUP) 3760 ikaslek. Laginean lurralde, jakintza-arlo, fakultate eta ikasketa-maila desberdinetako gazteak daude. Landa-lanari dagokionez, ikasturtearen hasieran, aurrez aurre, ikasgeletan betetzen dute lehen inkesta eta, hortik aurrera, panelean parte hartzeko baiezkua ematen duten ikasleei Whatsappez bidaltzen zaizkie hurrengoko bost galdetegiak, hilean behingo maiztasunarekin.

Txosten honetan aurkitu daitezke 2025eko azaroaren 13 eta 25 bitartean TikToki buruz egindako inkestaren emaitzak. Guztira, 3025 ikasleren erantzun baliagarri jaso dira.

IKUSIKERen Unibertsitateko panela EHUko eta UPNA/NUPeke ikasle guztien errepresentagarri da. Unibertso horren kopurua lortzeko, laginaren datuen gaineko ponderazioa egiten da, eta horretarako, aldagai hauek erabiltzen dira:

- Generoa
- Unibertsitatea
- Probintzia
- Ikasketa eremua
- Ikasketa-maila


2. EMAITZAK

TIKTOK

Azken urteetan zehar, TikTok indarrez sartu da gaztetxoenen ikus entzunezko kontsumo ohituretan. Unibertsitateko ikasleen kasuan joera hori apalagoa izan bada ere, erabiltzen dituzten sareen artean TikTokek badu aipatzeko moduko tokia.

Beheko irudiak erakusten duenez, 79,3k profil bat du (gutxienez) sare sozial horretan. Emakumeen ehunekoa gizonena baino 15,8 puntu altuagoa da.


1. irudia: TikToken kontua izatea. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera



Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa


Beheko grafikoak erakusten duenez, ikasleen % 73,8k erabiltzen du TikTok, eta erdiak baino gehiagok (% 54,8) sare sozialaren kontsumo intentsiboa egiten du (egunean behin baino gehiagotan egindako kontsumoa, hain zuzen). Kontsumo intentsiboa egiten dutenen artean interesgarria da generoaren arabera irakurketa egitea. Izan ere, emakumezkoen artean gehiago erabiltzen da (% 64), gizonezkoen artean baino (% 42,9). Era ez intentsiboan kontsumitzen dutenen portaeretan generoa ez da erabakigarria, baina TikTok erabiltzen ez dutela dioten artean, hau da, guztizkoen % 26,2, generoak irakurketa baldintzatzen du beste behin: kasu honetan gizonen artean % 37,5 dira, eta emakumezkoen artean %17,5 aipatutako sare soziala erabiltzen ez duena.

2. irudia: TikTok erabilera maiztasuna. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa

3. irudia: TikTok erabilera maiztasun tipologiak. Ehunekoak guztira



Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa


¹ Egunean behin baino gehiagotan + egunean behin + astean behin + astean 2-5 aldiz + hilean behin

² Egunean behin baino gehiagotan

TikTok sare soziala erabiltzen duten horiei bertan ematen duten denboraren inguruan galdetu zaie. Erantzunak anitzak diren arren, 31-120 minutu kontsumitzen dutenen ehuneko 56,8 da, baina alboetan ere jendea pilatzen da. Esaterako, TikTok

erabiltzen dutenen % 25,8k bi ordu baino gehiago ematen du TikTok egunero. Kontsumo denborak generoaren arabera behatuta, emaitzak antzekoak direla somatzen da, ez dago ezberdintasun aipagarriarik zentzu honetan.


4. irudia: TikTok egunean pasatzen duten denbora. Guztira eta generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa

Irakurketarekin jarraituz, sare soziala erabiltzen duten ikasleei galdetu zaie aukera izango balute, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko luketen TikTok. Horien % 81,7k denbora gutxiago eman nahiko luke sare sozial horretan. Multzo honi hurbilagotik begiratuz, % 54,3k "askoz denbora gutxiago" eman nahiko luke aipatutako sare sozialean. Denbora gutxiago eman nahi dutenen artean, gehiago dira emakumezkoak, gizonekiko ezberdintasuna txikia izan arren. Gogoratu behar da emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dutela TikTok.

5. irudia: TikToken denbora gehiago ala gutxiago eman nahiko luketen. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa

TikTokeko erabileran sakonduz, ikasleek sare sozialak eskaintzen dituen funtzioen inguruan inguruan erantzun dute. Hasteko, funtzioen artean bi multzo bereizi behar dira: aplikazioak proposatutako edukia eskaintzen dutenak ("zuretzako" eta "explorar" atalak), eta erabiltzaileak aukeratutakoak ("jarraitutako kontuak", "lagunak", lagunekin partekatutako mezuak, edo "lupa"-rekin egindako bilaketak).


Gehien kontsumitzen den baliabidea "Zuretzako" leihoak eskaintzen duen edukia da: erabiltzaileen % 97k erabiltzen du, eta horietatik % 87,1k gutxienez egunean behin kontsumitzen du. Bigarren baliabide erabiliena mezuak dira (% 78,4): bertan lagunen artean beste erabiltzaileen bideoak partekatzen eta komentatzen dituzte. Bideoen kontsumoarekin jarraituz, % 69,3k kontsumitzen ditu "Explorar" atalean agertutako bideoak (horietatik % 4,9k gutxienez egunean behin), eta % 70,3k haiek propio jarraitzen dituzten kontuek sortutako edukia (% 30,7k gutxienez egunean behin). Propio bilatutako edukiarekin jarraituz, nahiko altua da "lupa" baliabidearen bitartez egiten den kontsumoa. Erabiltzaileak berak bilaketa bat egitetik sortzen den kontsumoa da hau, eta ikasleen % 76,4k erabiltzen du baliabide hau (% 36,7k gutxienez egunean behin egiten du bilaketa bat).

Aipagarria da unibertsitateko ikasleen % 73k ez duela inoiz edukirik igotzen plataformara. Azkenik, interesgarria da aipatzea aplikazioak "denda" atala duen arren, horren erabilera oso urria dela: % 91,5ek ez du inoiz ez erabili.

6. irudia: TikTokeko funtzioen erabilera. Ehunekoak guztira.




Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa



TikTok erabiltzen dutenei sare sozialari zein nota jarriko lioketen galdetu zaie. Sarea erabiltzen duten % 91,6k hamarretik bost puntu baino gehiago ematen dizkio. Izan ere, horren erdiak zortzi puntu edo gehiago ematen dizkio TikTok. Kasu honetan, ez dago bereizketa aipagarriarik generoari dagokionez.

7. irudia: TikToki emandako nota. Ehunekoak guztira eta generoaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa

ONGIZATEA

Ikasturte honetan HIKTen erabilerak ikasleen ongizatean duen eraginari buruz galdetu da. Proposatutako esaldiekiko adostasun maila erakutsi dute ikasleek bost mailako eskalan.

8. irudia: Ongizatearekin lotutako bost esaldien gaineko adostasun maila. Ehunekoak guztira.




Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa

Hasteko, unibertsitarioen % 49 ados edo guztiz ados dago sare sozialik gabe hobeto biziko ginatekeelako baieztapenarekin. Ia ehuneko 30ek ez du iritzirik erakusten eta % 20 inguru baieztapen horren aurka dago. "Askotan lo gutxiegi egiten dut gauez berandura arte sare sozialetan ibiltzeagatik" esaldiari erreparatzean, ikusten da ikasleen % 50,7 ados edo guztiz ados dagoela esaldiarekin, baina beste % 37,3k kontra edo guztiz kontrako iritzia erakusten du. Horrez gain, sare sozialetako menpekotasuna bakardadearekin lotu den arren, ikasleek ez dituzte bi elementuak

harremanetan jartzen. Horrela, "sare sozialetan sartzen ez banaiz bakarrik sentitzen naiz" esaldiaren aurrean, ikasleen % 65,8 kontra edo guztiz kontra kokatu da.

"Niri pertsonalki min edo kalte egiten didaten edukiak ikusi izan ditut sare sozialetan" esaldia baloratzerakoan % 40k ados dagoela adierazi du, eta % 38,4k kontra. Datua generoaren arabera irakurriz, emakumeen % 44,2 adierazi du adostasuna, mutilekin 10 puntuko aldea ezarriz. Esaldi horrekin identifikatuta sentitzen ez diren gizonen ehunekoa 46,1ekoa da, emakumeen % 32,5ekin konparatuz.


9. irudia: "Niri pertsonalki min edo kalte egiten didaten edukiak ikusi izan ditut sare sozialetan" esaldiarekiko adostasun maila. Ehunekoak generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa

Nahiz eta sare sozialak egunero erabili, horien mugen jakitun ere badira. % 58,4k uste du sare sozialak ez direla haien "gustuak eta iritziak partekatzeko leku seguruak". Baieztapenen honen adostasun maila generoaren arabera aztertuz, ikusten da kontra dauden gizonezkoak emakumezkoak baino 7,5 puntu gehiago direla (% 62,7 eta % 55,2, hurrenez hurren). Hala ere, ados dauden emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ez da oso handia.

10. irudia: "Nire gustuak eta iritzia partekatzeko leku seguruak dira sare sozialak" esaldiarekiko adostasun maila. Ehunekoak generoaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko azaroa

LABURREAN

TIKTOK

- Hamar ikasletik ia-i ikasleen % 79,3k profil bat du (gutxienez) sare sozial honetan eta emakumeen ehunekoa gizonena baino 15,8 puntu altuagoa da.
- Gazteei TikTok erabiltzeko ohiturari buruz galdetu zaienean, % 73,8k noizbait egiten duela adierazi du eta % 54,8k egunean behin baino gehiagotan egiten duela baieztatu du. Erabiltzeko denborari dagokionez, ikasleen % 56,8 30 minutu eta 2 ordu bitarteko langan kokatzen da, eta ikasleen % 25,8k bi ordu baino gehiago pasatzen du egunero TikTok. Ikasleen % 81,7k denbora gutxiago eman nahiko luke TikTok.
- TikTokek eskaintzen dituen funtzioen erabilera-maiztasunari erreparatuta, "zuretzako" atalak gainerakoetatik nabarmentzen da. Aplikazioak berak erabiltzailearen esperientzia oinarrituta egindako bideoen aukeraketa agertzen da atal honetan eta ikasleen % 76,7 egunean behin baino gehiagotan sartzen da atal honetan.
- Erabiltzaileak berak aukeratutako edukiak erakusten dituzten funtzioek ("mezuak", "jarraitutako kontuak", "lagunak") badute presentzia, baina bigarren mailakoa "zuretzako" atalarekin konparatuz. Azkenean aipatutako funtzio azken horiek erabiltzen ez dituzten ikasleen ehunekoa 20-30aren bueltan dabil.
- TikTok erabiltzen duten ikasleen %91,6k 5etik gorako nota ematen diote. % 44,8k zazpiko eta zortziko puntuaketak eman dituzte.

ONGIZATEA

- Ikasleen % 49k uste du hobeto biziko ginatekeela sare sozialik gabe.
- Ikasleen % 50,7k aitortzen du inoiz lo gutxiegi egin duela gauez berandura arte sare sozialetan ibiltzeagatik.
- Unibertsitarioen % 65,8k ez du sentitzen bakarrik dagoela sare sozialetan ez badago. Izan ere, ikasleen ia erdia (% 47,7) esaldi horrekiko "gutziz kontra" agertu da.
- Emakumeen % 44,2k adierazi du noizbait pertsonalki min egin dieten edukiak ikusi izan dituztela sare sozialetan, mutilekin 10 puntuko aldea ezarriz.

IKUSIKER

IKUSIKER Ikus-entzunezkoen Behategiak gazteek ikus-entzunezkoak ikusteko eta HIKT edo Harreman, Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen dituen behategia da.

IKUSIKER 2018/2019 ikasturtean sortu zen NOR Ikerketa Taldeak (IT1438-22) eta EITBk abiatutako IKUSIKER (US24/29) ikerketa-proiektuaren barruan. Gaur egun, EHU, EITB, Euskararen Erakunde Publikoa, Kulturaren Euskal Behatokia eta Euskarabidearen arteko elkarlanaren fruitu da.



EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

Sarriena auzoa z/g. 48940. Leioa (Bizkaia).

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus